



## IKASLEEN KONTSEILURAKO ESTATUTUAK

### HITZAURREA

Ikasleen parte-hartzea haurren eskubideei buruzko Konbentzioan deskribatutako oinarriko eskubideetan oinarritzen da, 1989ko azaroaren 20an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutakoa.

Parte hartzea ikasleek beren hezkuntza eraikitzeko duten eskubidea bizitza propioa modu autonomoan bideratzeko ulertzen da. Eta oinarriko eskubide pertsonalei eragiten die: askatasuna, iritzia, elkarketa eta informazioa.

Ikasleak pertsona aktiboak dira, beraien bizitzarekin zerikusia duen guztian arazoak eta konponbideak deskubritzeko kapazak izanik, Larramendi ikastolan Ikastolako arau, instalazio, espazio, denboratan... ikasleek ekarpen handia egin dezaketela ulertzen dugu.

### I.KAPITULUA. Helburuak

#### **1.artikulua. Definizioa.**

Ikasleen Kontseilua Ikastolaren aholku-emaile eta parte hartzeko organoa da, Kontseilu Errektoreari, Eskola Kontseiluari eta ikastolaren organoei, ikasleen ikuspuntua bermatuko diena, ikastolarekin eta beraien hezkuntza zuzenarekin lotutako gaiei buruz.

#### **2.artikulua. Helburua.**

Parte hartzeko organo aholku-emailea da Ikasleak ikastolako bizitzan informazio, inplikazio eta partehartzea izan dezaten.

### II.KAPITULUA. Egitura, osaketa eta funtzionamendua

#### **3.artikulua. Osaera eta funtzionamendua.**

DBH eta Batxilergogo maila bakoitzeko ikasle ordezkari bat, eskola kontseiluko ikasleen ordezkariak eta ikastolan antolatutako edozein ikasle taldeko kide batek osatzen dute Ikasleen Kontseilua.

Horretarako gelako ikasle ordezkarien kasuan hauteskundeak prestatuko dira. Ikasleek gelan izendatutako ordezkarietatik maila bakoitzeko bat aukeratuko dute Ikasleen Kontseiluan parte hartzeko.

Ikasleen Kontseiluko koordinatzailea ikastolako Zuzendari Pedagogikoa izango da.





Ikasleen kontseiluko idazkaria ikasleetatik helduena izango da.

#### **4.artikulua. Funtzionamendua.**

Hiruhilabetero ohiko batzarrak antolatuko dira eta ez ohiko batzarrak egin ahal izango dira koordinatzaileak deituta edo Ikasleen Kontseiluko kideen heren batek deituta.

Era berean ikastolako edozein organok deitu dezake batzarra beharrezkoa ikusiko balu (Kontseilu Errektorea, Eskola Kontseilua, Zuzendaritza...)

Ikasleen kontseilu bileretarako deialdiak koordinatzaileak bidaliko ditu ikasleen helbide elektronikoetara eta deialdia eta aurreko bileraren aktaren dokumentazioa bidaliko du.

Batzarren ohiko deialdia 7 egun lehenago egingo da eta ez ohikoen kasuan bi egun lehenago

Batzar guztietan idazkariak akta jasoko du.

Ikasleen kontseilutik sortzen diren proposamenak ez dira bertan bozkatuko, bai eztabaidatu kontseilari guztiek uler ditzaten eta dagokion ikastolako organora bideratuko dira. Hauek konpromiso hartzen dute ikasleen kontseiluko proposamenei era formalean eta argudiatuz erantzuten.

#### **5.artikulua. Ikasleen Kontseiluaren funtzioak**

Ikasleen Kontseiluaren eginkizunak hauek izango dira:

- Kontseilu Errektoreari, Eskola Kontseiluari eta Zuzendaritza eta koordinazio organoei ikasleei eragiten dieten arazo orokorrei buruz informatzea era formal batean. Gela batean egon daitezkeen kezka, arazoak, proposamenak... tutorearen bitartez landuko dira tutoretza orduan.
- Aldaketa-proposamenak egitea ikastolako organo desberdinei.
- Eragiten dizkietan gaiei buruzko proposamenen berri izatea.

#### **6.artikulua. Koordinatzailearen funtzioak**

Ikasleen Kontseiluko koordinatzailearen eginkizunak izango dira:

- Ikasleen Kontseiluaren bilerak deitzea eta bertaratzea.
- Gai-zerrenda prestatzea.
- Ikasleen parte-hartzea bermatzea.
- Kontseilarien ideiak edo ekarpenak ez ditu epaituko.
- Kontseilarien ideiak eta ekarpenak landuta eramatea laguntzea.
- Kontseiluaren eta ikastolako gobernu-organoen arteko harremana koordinatzea.





Ikasleen Kontseiluko idazkariaren eginkizunak izango dira:

- Batzarren aktak jasotzea eta koordinatzaileari bidaltzea.
- Beste kontseilukideak bezala partehartzea.

**8.artikulua. Eratzea**

Kontseilua eratutzat joko da ikasleen erdia gehi bat bertaraten direnean.

Hala ere, beti egon beharko dute koordinatzailea eta idazkaria.

**8.artikulua. Bajaren arrazoiak**

Ikasle batek borondatez uko egiten badio karguari koordinatzailea informatu behar du eta bere ordezkoa mailako ikasleek aukeratuko dute gelako ordezkarietatik.

